



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko abenduaren 10a

39. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Aurkeztutako osoko zuzenketak (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizonen eta emakumeen soldaten arteko arrailari aurre egiteko plan bat urgentziaz taxutu dezan. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak onetsia (4. or.).

—Erabakiak, “Herritarren parte-hartze eta erabakitze eskubidea esparru ekonomiko, sozial eta politikoa” gaiari buruzko Osoko Bilkura bereziak onetsitakoak. (5. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala aplikatzearen aldeko konpromisoa berresten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

AURKEZTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak. Proiektu hori 2015eko azaroaren 11ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Gobernuari itzul dakion proposatzen da.

Zioen azalpena

Nafarroa eta gainerako autonomia erkidegoak lehian daude enpresak erakartzeko, jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko eta lurraldea indartsuago egiten duten azpiegiturak eraikitzeko; halaber, arlo fiskalean ere, lehiakide dira.

Krisialdi ekonomiko gogorraren ondoren, non herritarrek ahalegin handia egin behar izan baitute, Nafarroaren "lehiakideek" beherapen fiskalen aldeko apustua egin dute, aberastasuna, jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko. Nafarroan kontrakoa planteatzen da, halako moduz non zergak orokorrean igotzeak Nafarroa kokatuko duen Espainian fiskalitaterik okerrena duen erkidego gisa.

PFEZaren tributazioaren arloko aldaketek eragina izanen dute laneko errentetan, hain zuzen ere deklaratzeko diren errenten % 80 inguru egiten dutenak, eta familia-kenkariaren alda-

ketak berarekin ekarriko du seme-alabak dituzten familiak zigortzea. Horri gehitu beharra zaio pensio-planetara eginiko ekarpenengatikoko kenkariaren gutxitzea eta zergapetze tasaren igoera. Halaber, aurrezki-errenten tributazioa handitu da eta etxebizitzagatikoko kenkaria ezabatu da. Gauza bera gertatzen da ondarearen gaineko zergarekin, zeina Espainiako garestiena izanen baita, bereziki enpresa familiarrentzat.

Aurreko guztia dela eta, parlamentu-talde sinatzaileak eskatzen du foru lege proiektu hau Nafarroako Gobernuari itzul dakion.

2 ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa aurkeztu dio Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko 2016rako Foru Lege proiektuari, eta horren bidez eskatzen du lege proiektu hori Gobernuari itzul dakion.

Zioak: frogatuta dago zergen igoerek, zergadunei kalte larriak sortzeaz gain, ez dutela beti diru-bilketa handiagorik ekartzen, eta horren adibide dugu Espainiako Gobernuak, diru-bilketa handiagoa lortzen ari baita 2015. urtean zergak modu nabarmenean murriztu ondoren.

Errenten gaineko zergak igotzeak kaltea eta zehapena dakartza kontsumoarentzat eta aurrezkiarentzat. Beraz, oso erraz ondorioztatzen ahal dugu nafar ekonomiak ez duela hobera joko, eta diru-bilketa, ziurrenik ere, ez dela handituko.

Era berean, Nafarroako enpresei ezartzen zaizkien zerga-tasak Espainiako gainerako lurraldeetan ordaintzen dituzten enpresenak baina proportzio handiagoan igotzen badira, desabantaila gorrian geldituko dira, eta haien lehiakortasuna-

ren kalterako izanen da. Haietariko askok, aukera badute, Espainiako lurralde mesedegarriago bat bilatuko dute, eta tamaina txikikoek, lekuz aldatzeko aukerarik ez dutenek, hemengo gobernua-
ren zigorra jasan beharko dute, alegia, beste lurraldeetan baino gehiago ordaindu beharko dute. Beste alde batetik, zaila izanen da Nafarroan enpresa berriak ezartzea, gainerako eskualdeekin alderatuta inolako abantailarik ez badute. Horrek guztiak eragin larria izan dezake enpleguaren eskaintzan, eta ondorioak izanen dira langabezia-
ren igoera eta inbertsioak murriztea.

Horixe gertatuko da zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko foru legearen proiektu horrekin, nafarrei eragin negati-
bo nabarmena ekarriko baitie: nafarrek gainerako espainolek baino zerga-tasa dezente altuagoak edukiko dituzte. Lege proiektu hori erabat bidega-
bea da guztiontzat.

Nafarroako Gobernuak dio bakarrik 32.000 eurotik gainera izanen direla orain arte ordaindu dituztenak baino zerga altuagoak jasa-
nen dituztenak, baina erreforma fiskal horren erre-
alitatea da zerga igoerak 19.500 eurotik gorako errenta guztiak ukituko dituela. Zalantzarik gabe, Nafarroako Gobernuaren erreforma fiskalak erren-
ta handiak, ertainak zein txikiak ukituko ditu. Ez dugu ahaztu behar 19.500 eurotik beherako erren-
tek ez dutela ia zerga-abantailarik izanen kopuru horretatik gorako errentek izanen duten igoerare-
kin alderatuta.

Beraz, erreforma fiskal horrek zigor nabaria dakar errenta txikientzat eta familientzat. Foru Komunitatean seme-alabak izateak zerga-erreakar-
gu bat dauka beste erkidego batzuen aldean.

Egoera bereziki kezagarria da nafarrek jasa-
nen dituzten zergak alderatzen baditugu erkidego mugakideetakoekin, esate baterako, Euskadi edo Errioxakoekin, bertako biztanleek nafarrek baino gutxiago ordainduko baitute PFEZaren kon-
zeptuagatik.

Baina zerga igoera horrek ez ditu bakarrik herritarrak ukituko; Foru Komunitatean jarduera duten enpresek ere gainerako autonomia erkide-
goetakoekin baino zerga-zama handiagoak pairatu-
ko dituzte: sozietateen gaineko zerga % 28raino igoko da, Espainiako gainerako lurraldeetan % 25ekoa den bitartean, eta % 23ra jaisteko joera-
rekin. Egoera horren ondorioak izanen dira nafar enpresen lehiakortasun galera, inbertitzeko ahal-
mena murriztea, enplegua sortzeko aukera gu-
txiago egotea eta, azken finean, zenbait enpresak Nafarroa utzi eta erkidego mugakideak hautatuko dituztela ezartzeko, zerga-baldintza hobekak edukiko dituztelako.

Azken finean, egungo Nafarroako Gobernuaren erreforma fiskalak, zalantzarik gabe familiak zigortu eta herritarrak itoko ditu, kontsumoaren eta aurrezkiaren, eta aldi berean jarduera ekonomikoaren kalterako diren zergen bidez. Agerian da erre-
forma bidegabea, desorekatua eta arduragabea dela, Nafarroan atzeraldia sortuko duena, diru-bilketa handitzerik lortu gabe.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak osoko zuzenketa hau aurkeztu dio Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko 2016ko ekitaldirako Foru Lege proiektuari, Nafarroako Gobernuari itzul dakion.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizonen eta emakumeen soldaten arteko arrailari aurre egiteko plan bat urgentziaz taxutu dezan.

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak, 2015eko abenduaren 2an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizonen eta emakumeen soldaten arteko arrailari aurre egiteko plan bat urgentziaz taxutu dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizonen eta emakumeen berdintasunerako plan bat urgentziaz taxutu dezan, soldata-arraila % 0koa izateko neurriak ezarriko dituena. Neurri horien artean sartuko dira emakumeen enplegarritasuna hobetzeko neurriak eta enpresetan nahiz administrazioan berdintasuna bermatzeko programak.

Hartzen diren neurriek egiazki eta eraginkortasunez bermatu beharko dute berdintasuna, hala etxeko lanen eta zainketen banaketa sozialari

dagokionez nola balio bereko lan batengatik ordaintzen den soldatari dagokionez; hortaz, bermatu eginen da genero berdintasuna enplegu bat lortzeari eta mantentzeari dagokionez eta enpresetako prestakuntzari eta barne sustapenari dagokionez, berdintasuna eragozten edo zailtzen duten oztupoak kenduta.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du lan erreforma berehala indargabetu dezan, 2012an egindako erreformetatik hasita lan erreforma gizon eta emakumeen berdintasunerako izaten ari den inpaktu negatiboa-rengatik besteak beste; horren froga da emakumeen jarduera-tasa jaitsi izana eta bi generoen artean dagoen soldata-arraila; izan ere, emakumeen kontratuak prekarioagoak eta motzagoak dira, betetzen dituzten lanpostuak ez datoz bat haien kualifikazioarekin, eta gutxiago kobratzen dute beti."

Iruñean, 2015eko abenduaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakiak, “Herritarren parte-hartze eta erabakitze eskubidea esparru ekonomiko, sozial eta politikoan” gaiari buruzko Osoko Bilkura bereziak onetsitakoak.

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko azaroaren 27an “Herritarren parte-hartze eta erabakitze eskubidea esparru ekonomiko, sozial eta politikoan” gaiari buruz egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hauek onetsi zituen:

«**Lehena.** Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du, Espainiako Konstituzioaren balizko erreforma bat gogoan, lehen xedapen gehigarria mantentzen dadin proposatu eta defendatzeko.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak burubelari ahalegintzeko konpromisoa hartzen du, Estatuak Nafarroaren foru-araubidearen kaltetan emandako arauak indargabetu daitezzen; zehazki, honako hauek:

- Espainiako Konstituzioko 135. artikulua, gaur egun daukan testuarekin, zeina PP eta PSOE alderdiek adostu eta 2011ko irailaren 27ko “reforma exprés” izenekoaren bidez paratu baitzen.

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzkoa.

- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzkoa.

- 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak prozesu parte-hartzaile eta parlamentario bat irekitzeko bere konpromisoa adierazten du; xedea da Foruaren Hobekuntza aldatzea, Nafarroaren estatus politikoa zehazteko, eskumen berriak sartzeko eta eskubide sozialen aitorpenean sakontzeko, eskubide horiei ahal den lege-mailarik handiena emanez, benetan bete daitezzen, eta aldaketa bera herritarren berrespenaren menean jarritz.

Laugarrena. Nafarroako Parlamentuak bere borondatea agertzen du Parte-hartzeari buruzko Foru Lege bat oneste aldera, parte-hartze demokratikoaren ziklo osoa kontuan hartuko duena. Aipatu legean honako hauek agertuko dira, besteak beste: herritarrei galdetzeko tresnak, aurrekontu parte-hartzaileak eta gaitzespen politikorako formulak, Nafarroaren eskumen-esparruaren barnean.

Bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroak –bere herritar guztiek– subjek-

tu politiko bat osatzen duela, berezkoa eta berezia, erabakitze eskubidearen titularra dena.

Nafarroako Parlamentuak uste du erabakitze eskubidea gauzatu behar dela elkarriketaren bidez eta modu baketsu eta demokratikoan, betiere legezotasuna beteta.

Seigarrena. Nafarroako Parlamentuak:

1. Berresten du Nafarroaren autogobernuarekin duen konpromisoa zerga- eta finantza-arloan, eta Estatuak erakundeei eskatzen die autogobernu-esparru horrekiko errespetua eta leialtasuna.

2. Bere babesa erkusten dio Hitzarmen Ekonomikoari, estatuko lurraldeen arteko elkartasunetik abiatuta, eta exijitzen du haren eguneratzeak berma ditzala Nafarroak tributuen arloan dauzkan eskumenak.

3. Uste du Nafarroaren finantza- eta zerga-autogobernuaren aurkako eraso bat dela Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua erreforma, zeinaren bidez erabateko lehentasuna eman baitzitzaien zor publikoa ordaintzeari, eta artikulua hori indargabetu beharra dagoela adierazten du.

4. Uste du Nafarroaren finantza- eta zerga-autogobernuaren aurkako eraso bat dela Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2002 Lege Organikoa, zeinaren bidez murrizketa eta kontrol zorrotzak ezartzen baitzaizkio Nafarroako aurrekontu-politikari, eta lege hori indargabetu beharra dagoela adierazten du.

Zazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiazten du ahalik eta erraztasun handienak eman ditzan informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko, oinarrizko printzipioa baita ezagutza-bermearekin parte hartu eta laguntzeko, halako moduz non, alde batetik, publikitate aktiboaren printzipioa bete eta sustatuko baita –horren arabera, herritarrei etengabe eman behar zaie informazio egiazkoa, eguneratua eta objektiboa, haiek eskatu beharrik gabe– eta, bestetik, beharrezkoak diren mekanismo guztiak abian jarriko baitira, publikitate aktiboaren bidez erantzunik jaso ez duten herritarrek aukera izan dezaten informazio publikoa eskatzeko modu erraz eta arinean eta bermekin, ziurtagiri edo NAN elektronikoa bezalako oztoporik jarri gabe. Bi kasuetan, emandako informazio guztia eskuragarri egonen da formatu berrerabilgarri eta interoperagarrietan.

Zortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aktibatu eta susta dezan Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen 37. artikuluan aurreikusitako Herritarren Parte-hartzerako eta Elkarlanerako Erregistroa. Erregistro horren xedea da eraginkortasun handiagoarekin antolatzeari herritarrek parte hartu eta laguntzeko tresna jakin batzuen erabilera, eta bertan borondatez inskribatzen ahalko dira Administrazio Publikoaren eskumeneko gai berariazkoei buruzko informazioa jaso nahi duten herritarrak eta herritarren entitateak, herritarrek aktiboki parte har dezaten parte hartu eta elkarlanean aritzeko dauden tresna berariazkoetan, zeinak foru lege horren arabera Nafarroako Gobernuak taxututa beharko bailukete.

Bederatzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea bete eta beteaztearen aldeko apustu garbia egiten du. Bereziki, eskatzen du egiazki aktiba dadila IV. titulua, "Herritarren parte-hartzea eta elkarlana" izenekoak. Bertan, Administrazio Publikoaren konpromisoa ezartzen da herritarren parte-hartzea eta elkarlana sustatze aldera, herritarren parte-hartzea benetako eta eraginkorra izanzen dela bermatzeko tresnak eta eskubide hori baliatzeko bide berariazkoak eta herritarren parte-hartzerako eta elkarlanerako tresna berariazkoak ere ezartzen dira. Zehazki, eta sor litezkeen beste batzuen kalterik gabe, ezartzen du erregelamendu bidez garatuko direla kontsultaforoak, herritarren panelak eta herritarren epaimahaiak.

Hamargarrena. Bai Konstituzio Auzitegiak, bai Estatuko hainbat eragile eta arduradun politikok Nafarroaren autogobernuaren aurka eginiko ondoko ondoko erasoak direla eta, Nafarroako Parlamentuak adierazten du irmoki salatzen dituela eraso horiek, eta Nafarroako herritarrek daukaten eskubidearekiko errespetua exijitzen du, nafarrok eskubidea baitugu Estatuarekin tresna ekonomiko, sozial eta elkartasunezkoei buruzko aldebiko akordioa egiteko, hitzarmen ekonomikoaren bidez, hitzarmena autogobernuaren oinarritzko tresna bat baita.

Hamaikagarrena. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du Espainiako Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarriarekin, kontuan izanda Foruaren titulartasuna nafar herriari dagokiola eta Nafarroako erakundeek erabat demokratikoak, ordezkagarriak, parte-hartzaileak, anitzak eta gardenak izan behar dutela.

Hamabigarrena. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa agertzen du Nafarroaren identitatea mantentzearekin eta bere nortasun politikoa indartzearekin.

Hamahirugarrena. Nafarroako Parlamentuaren ustez, Espainiako Konstituzioa eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa tresna baliagarriak dira bizikidetzarako eta aurrerabiderako, eta horien edozein aldaketa modu demokratikoan eta horretarako ezarritako legezko bideei jarraikiz egin behar da.

Hamalagarrena. Nafarroako Parlamentuaren ustez, Espainiako Gobernuarekiko konfrontazioa ez da bide egokia autogobernuan sakontzeko; hori dela eta, Katalunian irekitako bidearen modukoak saihestu behar dira, bizikidetzaren haustura eta hondatzea besterik ez baitute ekartzen.

Hamabosgarrena. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako herritarrak elkarrekin bakean eta askatasunean bizitzeko marko demokratikoa dela Espainiako Konstituzioak babestu eta errespetatzen duen 1982ko Foru Eraentza Berrezartzeko eta Hobetzeko Ituna, bai eta Forru Komunitatearen autogobernu eskubiderako berme bat ere.

Hamaseigarrena. Nafarroako Parlamentuaren erabakia da Espainiako Konstituzioa errespetatu eta betetzea, babestu eta errespetatzen baititu gure foru araubidea eta bere zehaztapena diren gure eskubide historikoak».

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2015eko abenduaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala aplikatzearen aldeko konpromisoa berresten baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko abenduaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa berresten du, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala aplikatzekoa, eta dei berezia egiten dio Nafarroako hezkuntza-komunitateari aipatu adierazpena ikastetxean ezagutzera eman dezaten eta azter dezaten, giza eskubideen egiazko errespetua izan dadin bizikidetzaren oinarria.

2. Nafarroako Parlamentuaren aldetik ahalegintzea Nafarroan bakea eta giza eskubideen defentsa zabaltzeko eginkizunean, pertsona guztientzat, salbuespenik gabe, bereziki jende gaztearen artean, elkarlanean arituz nazioarteko erakundeekin, erakunde publiko eta pribatuekin, hezkuntzako eragileekin, ikastetxeekin, unibertsitatearekin, familiekin, komunikabideekin eta elkartearekin".

Iruñean, 2015eko abenduaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

